

# Erraldoien aroa

Colm Ó Ceallacháin



Itzulpena: Juan Mari Mendizabal

**bestehitzak**  
||| |

Co-funded by the  
Creative Europe Programme  
of the European Union



**focailleile**  
||| |

# Colm Ó Ceallacháin

## Erraldoien aroa

Itzulpena: Juan Mari Mendizabal

Caitríonak betidanik nahi izan zuen udan ezkondu. Harentzat uda garaian ezkontzea edertasun bereziko gauza zen, bizitza osoan behin bakarrik lilitzen zen lorea. Horretaz sinetsita zegoen, urte batzuk lehenago Máire bere ahizpa ezkondu zen abuztuko egun sargoritsuan bertan izan zelako. Hartan hamabost urte besterik ez izan arren, ohorezko dama bakarra izanik, bizitasun handiz gogoratzen zuen eguna. Parnell kaleko hoteltxoa mukuru zegoen, baina atzealdeko lorategi arratseko eguzkiak epelduak zalaparta hartatik bere onera itzultzeko aukera ongi etorria eskaini zion. Han, bakardadezko une berebiziko hartan, hotel barruko barre algara biziak eta ahots murmurioak entzuten egon zen.

Geroago, melodia geldo baten kantu doinuak iritsi zitzaizkion bere logelako leiho irekitik. Gau beranduan botatako zaparrada laburrak leiho hartaraxe eraman zuen, eta bertara iritsi zitzaion clematisen eta gardenien lurrin sarkorra, euriak beheko lorategia ere esnarazi balu bezala. Biharamuna agur esateko eguna zen, eta ezkonberriek Galwayko trena hartzeko errepidea zeharkatu zutenean amaitu zen. Gero Caitríonak eta haren amak etxeko bide laburra ibili zuten, gau hartatik aurrera, Máireren presentziarik gabe, isilagoa izango zen etxera zeraman bidea.

-Nor jarriko dut Máire eta Pádraigen alboan?

Hamar urte joan ziren haren ahizparen ezkontzatik, eta oraingoan Caitríona bere ezkontzarako gonbidatu-mahaiak antolatzen ari zen.

-Jar itzazu izebak –esan zion amak-. Beste edozein lekutan jarrita, elkarri mokoka ibiliko dira eta.

Caitríonak atzera berriz irakurri zuen postaz bidali beharreko ezkon-deien testua; hango letra urrezkoek lau haizetara zabaltzen zuten -edo berak hala irudikatzen zuen, behintzat- bere poza.

Caitríonak eta Máirtínek atsegin handiz gonbidatzen zaituztegu  
gure ezkontzara, Mount Saint Alphonsus elizan egingo dena  
1969ko uztailaren 20an, arratsaldeko ordu 2etan.

Gero Máirtíni hots egin behar zion azken zertzeladez mintzatzeko. Elkarrengandik ehun kilometrora bizitza latza zen halako egokiera batean, baina bazekien laster ibili beharko zuela distantzia hura beretzat oraindik hiri arrotz bat zen hartan finkatzeko. Pozik utzi zuen bere irakasle lanpostua hori egiteko, baina amaren falta sumatuko zuen. Izan ere, Caitríona haur bat zenetik alargundua, orain bakarrik geratuko baitzen etxean. Baina Caitríona pozik zegoen, bai hunkituta ere, bizitza berri bati ekingo ziolako maite zuen gizonarekin.

Sirenak jo zuenean, Máirtín egunkaria irakurtzen ari zen. Begirada jaso zuen, baina inor ez zen mugitu. Ohitzen ari zen lan berrira, Ford Escorten muntatze katean, eta ez zen izango lanera itzultzeko altxatzen zen lehena.

Haren lankideek gustura muntatzen zituzten autoak gogoak ematen zienean, eta Máirtín ez zen haiek baino motelagoa lanean; fabrikan sartu zen azkena izanik, baina, ordurako haien txantxen jomuga bilakatu zen.

-Noiz ezkondu behar duk?

Nedser ari zitzaion galdezka, bere kateko beteranoa.

-Uztailaren hogeian –erantzun zuen.

-Ilargian lurreratu behar ditek egun horietan –bota zuen norbaitek.

-Tira ba, seinale ona izango duk guretzat –esan zuen Máirtínek.

-Iristen badira, bai; baina hura alde bat utzita jarraitzen badute, zer?

Willie, azken oharra egin zuena, pailazo samarra zen, eta Máirtínek bazekien txantxa gehiago etorriko zirela laster geldiarazi ezean.

-Ziur nauk ongi joango zaiela –esan zuen.

-Ni ere seguru nagok; baina erne, gero, ez ezak hik jomuga huts egin gau horretan –jakinarazi zion Willie.

Luze gabe, lankideak aholkuak ematen ari zitzaizkion.

-Hik jo ezak zuzenean abiadura-kaxara.

-Irudikatu Cortina bat errematxatzen ari haizela.

Beti bezala, Máirtín pozik itzuli zen lanera.

Bere katera zihoalarik, Nedserrek hots egin zion.

-Gauza bat zeukaat hiretzat –esan zion, patrikatik mukizapi bat atera eta Máirtínen ahurrean ipiniz.

Mukizapia destolestu zuenean, Máirtínek zilarrezko domina handi bat ikusi zuen. Nedserrek hizketan jarraitu zuen ahots dardartiz.

-Hogei urtez gorde diat, 1949an Jeneralaren zilarrezko ezteiak ospatu genituen geroztik. Sinestezina duk berrogeita bost urtez herrialde honen lema gobernatu izana, bedeinkatua izan bedi.

-Madarikatua izan bedi agure alaena! –bota zuen Willie solasaldia ebaska entzun ondoren.

Gero jarraitu zuen:

-Eta madarikatua izan bedi atzean duen jendaila ustela. Ia laurogei urte, eta uste dik oraindik borrokan ari dela britainiarren aurka.

-Kontuz, gero, zer esaten duan –ohartarazi zuen Nedserrek, bere domina eskuaz babestuz.

Máirtínek dominaren ertz zorrotzak nabaritu zituen larruazalaren kontra, eta Willie berean segitu zuen.

-Zer uste dik ba, yankiek aukeratu dutela Apoloa gidatzeko Armstrong eta Aldrin ilargian pasieran ari diren bitartean, ala?

-Kontuz –esan zuen berriz Nedserrek; baina ordurako Willie urruntzen ari zen, bere artean barreka.

Nedserrek eskua askatu zionean, Máirtínek dominaren bi aldeak aztertu zituen. Irakurri zuen inskripzioa, gorazarre arranditsu nardagarri hura, eta pentsatzen hasi zen nola konbentzituko zuen Nedser ez zeukala halako baten premiarik.

Gizon hark lagun boteretsuak zituen erregimenean, eta, Willie aparta, inor ez zen sekula ausartu Jenerala iraintzen haren presentzian.

-Eskerrik asko, Nedser –izan zen azkenean atera zitzaiona-. Ohore handia duk niretzat.

-Ez horregatik, motel. Nahikoa ikusi al duk?

Arindurazko hasperen diskretu bat eginez, Máirtínek osterara bildu zuen domina mukizapian. Begiratu azkar baterako baimena besterik ez zuen izan, errones batek santu baten erlikien aurrean bezala, alegia. Nedserekek patrikara sartu zuen eta berriz hitz egin zion Máirtíni.

-Aholkutxo bat emango diat hire ezkon-egunaz. Gazteok ez zarete konturatzen gauza horien garrantziaz, baina uztailaren hogeia egun handia da, Jeneralaren eguna, boterea iritsi zuen egunaren urteurrena. Ez abagunea laidoztatu zuen ospakizuntxoarekin, Máirtín. Ezkontzeko beste egunen bat aukeratu.

Thomas kalearen kantoian zegoen Caitríona, Máirtínen zain; eta Máirtín berandu zebilen, beti bezala. Haientzat tradizio bihurtu zen, beren lehen hitzordurako toki hura aukeratu zuten egunetik, bertan elkartzea Máirtín bisitan zetorren bakoitzean. Hasieran arraun elkarteak eraman zuen Máirtín Shannon ibaiaren ertzerara, baina bera bezalako arraunlari gazteentzat estropada osteko dantzaldia zen benetako erakargarria. Gerora ere, bera eta Caitríona ezkongaialdian zeudelarik, dantzaldi askotan izan ziren, sarri egunsentia arte irauten zutenak. Gero, Máirtínek etxeraino laguntzen zion normalean, eta, muxu batzuk lapurtu ondoren, Corkera zihoan lehen autobusa hartzen zuen, eta handik zuzenean abiatzen zen lanera. Gaur ere, azkenean Máirtín iritsi zenean, Caitríonaren etxera zihoazen, baina oraingoa, ezkontzaren azken antolaketa egitera.

-Zer da? –galdetu zion Máirtínek bidean.

Elkartu bezain laster sumatu zuen neskaren ezinegona. Beti bezala, Caitríona alboan zihoan, ezer esan gabe. Ez zen eskutik helduta ibili zalea; ez halako apaltasun itxuragabe batek bultzatuta, baizik eta atsegingarri nahikoa iruditzen zitziailako Máirtínen lagunarte hutsa. Ezkondu arte harekin oheratuko ez bazen ere, ez zen inolako mindulina. Edonola ere, bere adineko ezkonduak ez zuten kontu horietaz hitz egiten, eta egiten zutenetan kutsu ezkor batez izaten zen. Sexu ekintza oro deskribatzen zen beraiek bezalako emakume oso jasankorrek eraman beharreko gurutze moduan. Caitríona ez zegoen ados balorazio goibel harekin, bazituelako bere desira propioak, ongi jabetzen zen haietaz. Senarrarekin partekatutako une pribatu guzti-guztiak gozatzeko asmoa zuen, hasieran trakets samarrak izanagatik ere, elkarri fisikoki ohitu ahala.

Caitríonak ez baitzion berehala erantzun, Máirtínek berriro galdetu zion.

-Zer da, laztana?

Neskak doi-doi jarraitu zion haren ibilerari erantzun bitartean.

-Ez nuen aipatu nahi etxera iritsi arte, baina tira, galdezka ari zarenez... Hotelak bertan behera utzi du ospakizuna.

Máirtínek ikuspegi normal samarra zuen bizitzaren ezbeharren aurrean: gauzak orain primeran ez bazihoazen ere, laster hobetuko zen egoera, edo, bederen, bere horretan jarraituko zuen. Eta gauzek okerrera egiten bazuten? Tira, beti geratzen zaigu osasuna. Hau da, bien bitartean hiltzen ez bagara. Bestela esanda, pesimista hutsa zen. Caitríona, berriz, beti baikor, eragina izaten hasia zen Máirtínengan, eta hark orain eman zion erantzuna optimismo sortu berri haren isla zen.

-Beste hotelen bat aurkituko dugu.

-Ez duzu ulertzen –erantzun zion neskak, amorru pixka batez-. Ez dago herrialde osoan data horretarako erreserba hartuko digun hotelik, arrazoi txepel batengatik.

-Utzi asmatzen: ospatu behar delako berrogeita bost urte daramatzagula gizon handiaren boten pean. Uztailaren hogeian ez da beste ezer ospatu behar, are gutxiago ezkontzak. Gora Jenerala!

-Lepoa bihurrituko nioke alu ziztrin horri. Ba data aldatu beharko dugu.

-Bai apaiza ere. Ez al zenidan esan Séamus egun pare batez bakarrik egongo zela etxean?

Caitrionaren osaba Séamusek –misiolaria bera- ezkondu behar zituen. Hamar urte misioetan eman ondoren, ordenak egun gutxi batzuetako oporrak eman zizkion ezkontza garaian Irlandan egon zedin.

Ordurako Caitrionaren etxera iritsiak ziren, baina Máirtín gelditu egin zen sartu baino lehen.

-Kontatu al diozu amari hau guztia?

-Zuri esan nahi nizun aurrena.

-Ongi. Esango diogu ezkontza hamabost egun barru izango dela, pentsatua genuen bezala.

-Eta hotelarena, zer?

-Bost axola hotelarena. Ospakizun xume bat egingo dugu beste nonbait.

-Seguru al zaude, maitea?

-Zer egin behar digute? Kartzelan sartu?

-Litekeena da. Musika taldearena ere bertan behera utziko dut.

-Bai, hobe duzu. Beharbada Máirek abesti batzuk kanta litzake haien orde.

-Zer nahi duzu, gonbidatu guztiek alde egitea, ala?

-Tira, orain ezingo dira hainbeste izan. Martxa honetan, hemen bertan egin genezake ospakizuna, zure amaren egongelan.

Hurrengo astelehenean, bazkal orduan, arduradunak bere bulegora deitu zuen Máirtín. Bi gizon arrotz zituen zain: berrogeitaka urteko tipo lodi burusoil bat, eta zaharragoa zen beste bat, zeinaren begi bilduek Máirtíni jarraitu baitzioten gelan sartu zenetik. Zer arraio nahi ote zuten txakurrek?

-Eseri –esan zuen arduradunak, eta zigarreta bat piztu zuen mahai atzean esertzearekin batera.

Eseri bezain laster, Máirtínek presio areagotu bat nabaritu zuen bere aulkian; txakur lodikotea atzean jarri eta eskuak aulkiaren bizkarraldean pausatu baitzituen. Máirtín aurrerantz makurtu zen, hatz potolo iletsu haien ukitu xumeena ere saihestu nahian.

-Azken astea duk lanean ezkongabe –esan zion arduradunak, aulkian eroso jarritz.

-Halaxe da. Hortik aurrera, agur askatasunari.

-Bi asteko oporrak hartu behar dituk, nonbait.

-Ez al dut horrenbeste merezi pasa den urtean aparteko ordu mordoa sartu ondoren? Honek ez daki lan gogorra zer den –esan zuen atzerantz jiratuz, baina beste biek mutu jarraitu zuten.

Arduradunak ke zurrusta bat jaurti zuen eta osteria ekin zion.

-Noiz da egun handia?

-Igandean zortzi.

-Igandean zortzi –esan zuen bi poliziakideetako zaharrenak. Hormaren kontra bermatuta egona zen ordu arte, Máirtínen ikuspegitik kanpo, beste kidearen atzean.

-Igandean zortzi –errepikatu zuen-. Zer egun da hori?

-Hogeia –erantzun zuen Máirtínek-; nire egutegian, behintzat.

-Hogeia, zure egutegian. Zer hogeia, hogeigarren mendea? Edo gure Paten azken hogeia kiloak, adibidez?

-Isilik egon hadi, astazakila halakoa –erantzun zion kideak.

-Uztailaren hogeia –esan zuen Máirtínek, ahopean.

-Uztailaren hogeia. Data hori ezaguna egiten zait, baina ez dakit zergatik. Ba al duzu ideiarik zergatik izan daitekeen, Máirtín?

Larridurazko hogeita hamar segundotan, Máirtínek aditu zuen gauza bakarra izan zen Paten arnasaldi astuna bere buruaren gainean. Galdera errepikatu zioten.

-Ideiarik bai?

Patek hitz egin zuen aurrena.

-Ez al da Leinsterreko finalaren eguna, Éamonn?

-Arrazoi duk, Pat, arranopola. Leinsterreko finala izango duk. Baina, egia esan, ez duk gauza bera izango nire konderrira ez dagoenean. Wexford gaixoa; eta ez duk urte bat joan Irlandako Liga irabazi zuenetik. Hurlinga interesatzen, Máirtín?

-Pixka bat.

-Corkek ba al du aurten irabazteko aukerarik, zure ustez?

-Wexfordek baino gehiago, inondik ere.

Máirtínek Paten hatz koskorren kolpe lehorra sentitu zuen buru gainean.

-Zaindu manerak, ziztrin alaena.

Ekintza simple haren mehatxuak lozorro gisako batean murgilarazi zuen Máirtín, eta entzuten jarraitu zuen isiltasun durduzatu batean, Éamonnek galdeketarekin segitu zuenean.

-Eskolara joandakoa al zara, Máirtín?

-Bai horixe.

-Bai horixe. Herritartasun eskolak edo historia eskolak huts egin al zenituen?

-Inondik ere ez.

-Eta hala ere ez duzu data jakin batzuen esanahia ezagutzen. Uztailaren hogeia, adibidez.

Berriz zabaldu zen isiltasuna bulegoan, Patek hautsi zuen arte.

-Tira, nahikoa entzun dut –esan zuen, arduradunaren eskua tinkatuz-. Ez dizugu denbora gehiago kenduko. Segi, Máirtín, osteratxo bat egin behar dugu.

Ordu erdi bat zeramatenean autoan, landa-errepide bihurgunetsuetan barrena eta zuhaitzen itzaletan sartu-irtenak egiten, zubitxo batera iritsi ziren. Hura zeharkatu bezain laster, autoa albo batean utzi zuten. Errekaren ondoan bide estu bat zegoen, eta hari jarraitu zioten intsusa-multzo batera iritsi arte.

-Nora goaz?

Bi poliziakideak aurrean zihoazen, elkarrekin hizketan, haiei jarraitzen lanak zituen Máirtíni jaramonik egin gabe. Garbi zegoen ongi ezagutzen zutela bidexka hura, azkar baitzebiltzan intsusa lorez abaildutako adarren azpian. Máirtín, atzerago, polen hauts geruza mehe batek estali zuen. Orduan bidezidorra gora egiten hasi zen, eta aurreko biak isildu egin ziren gorantza ahalegindu bezala. Tarte batean, soilik aditzen zen uraren murmurioa eta matxinsalto baten asaldura ozena, beti urrats bat haien aurretik, etengabe kexuka. Gero bidea kolpez lautu zen, eta eraikin industrial batera iritsi ziren.

Patek giltza sorta bat atera zuen sakelatik, eta, giltzak banan-banan probatzen aritu ondoren, azkenean lortu zuen giltzarrapodun atea irekitzea. Eraikinak tailer baten itxura zuen: zurezko eta metalezko zatiak lurtean sakabanatuta edo atzealdean pilatuta. Patek habeartean erdialdean zegoen eraikin prefabrikatu baten atea ireki zuen eta Máirtín sartzeko keinua egin zion.

Barruko bulego txikian ozta-ozta sartzan ziren hirurak: poliziakideak mahai baten gainean erdi eserita, eta Máirtín haien aurrean, gelako leiho bakarrari bizkarra emanda.

-Non egin behar duzue ospakizuna? –galdetu zion Éamonnek atea itxi orduko.

Máirtínek hotelaren izena eman zuen, bai aipatu ere bertan behera utzi zutela ospakizuna.

-Bertan behera utzi duzue, noski –esan zuen Patek-. Argi dago benetako abertzaleak zaretela.

Jaka erantzi zuenean, izerdi zaharminduzko kiratsa hedatu zen gelan. Máirtínek arnasari eutsi bitartean, Éamonn osterara mintzatu zen.

-Non zarete ezkontzekoak?

Máirtínek elizaren izena esan zion, baita elizkizuna bertan behera geratu zela ere. Esan zion ekitaldi pribatu xume bat egingo zutela etxean, eguneko zeremonia ofizialei traba ez egitearren. Pat zutik jarri zen, Máirtínen aurpegitik zentimetro batzuetara, eta indar biziz bidali zion bere hats garratzaren oparia.

-Herrialde handia da hau –esan zuen-, baina batzuek ez diote inongo errespeturik erakusten.

Hatz potolo batek azpimarratu egin zituen azken hitzak Máirtínen bularraren aurka.

-Jendaila dira horiek –jarraitu zuen, dena txistuz ziprztinduz-. Bere burua ezin kontrola dezakeen jendaila. Ustelak!

Esertzearekin batera, Éamonn ordu arteko kutsu zuhur beraz mintzatu zen.

-Zer egingo du Séamusek?

-Séamusek?

-Séamus apaiz agurgarriak, zure emaztegaiaren osabak. Ezkondu behar zintuzten gizonak.

-Máirtín –Patek berriz hartu zuen hitza-, ba al zenekien munduko hamazazpigarren uharterik handienean bizi garela? Hamazazpigarren uharterik handiena, pentsa. Txipre baino handiagoa, baita... baita Zeelanda Berria baino handiagoa ere! Jendaila hori gure herrialdearen aurka mintzo denean, ez dute halakorik aipatzen.

-Séamus trebea zen hurlingean –jarraitu zuen Éamonnek-. Pare bat aldiz markatu nuen. Tipo gogorra, txikia. Orbain ederra eduki beharko luke garondoan nire makila kolpe batek eragina. Begiraiozu aldarean bizkarra ematen dizunean.

-Ez gara elizan ezkonduko.

-Ez, jakina. Gainera, zer presa dago? Zergatik ez duzue urte batzuk itxoiten, Séamusek bere zilar ezteiak ospatu arte?

Gela estuko giro itogarri hartan itaunketak aurrera egin ahala, Máirtín gero eta ahulago sentitzen zen. Eguzki biziak garondoa kiskaltzen zion bitartean, gero eta lehorrago sentitzen zuen mingaina. Benetan gertatzen ari al zen hura?, galdetu zion bere buruari. Benetan ari al zitzaizkion bere ezkontza bezalako gai hutsal batez itauntzen? Ikara batek hartu zuen Patek saihetsezurretan ukondokada bat eman zionean, jostari.

-Begira gure Éamonn, alproja lizun hori. Ezin izan zuen hilabete bat itxoin ezkontzeko, eta urte pare bat, zer esanik ez.

Bere ateraldiaz pozez txoratuta, mahai gainean eseri zen berriz ez tul eta algara artean.

-Ulertzen ez dudana –esan zuen Patek- da nola gidatuko duten Apoloa egunez, argiegi egongo baita ilargia non dagoen ikusteko.

Astiro gidatzen zuen, esku bat bolantean eta bestea autoaren sabai gainean erritmo bizi bat markatzen. Éamonn atzerantz itzuli zen eta Máirtín mintzatu zitzaion.

-Aditu al diozu, Máirtín? Egundaino halako txorakeriarik! Auzo-lotsa sentiarazi nahi dit, nonbait. Tira, edozeinetara ere, hona zer egingo dugun, Máirtín. Uztailearen hogeia jaiegun nazionala da, ongi dakizun bezala, eta ospakizun ofizialak bakarrik daude baimenduta. Azaldu zaitetz polizia etxean astebete barru-edo, ezkontzaren data eta leku berriak jakinaraztera.

Gero Patengana jiratu zen osterara.

-Aditu al duk inoiz espazioko hutsune ilun ikaragarriaz? Apustu egingo nitek hori huskeria bat dela hire belarrien arteko espazioaren aldean.

Barrez jarraitzen zuten Máirtín hirian utzi zutenean. Abiatu baino lehen, Patek burua atera zuen leihotik.

-Datorren astea arte! –oihu egin zion-. Eta Máirtín, ez ahaztu, hamazazpigarren uharterik handiena. Segi, txintxo ibili.

Haiek abiatutakoan, Máirtín geldirik geratu zen apur batean, eguzki galdatan, mugitu gabe. Izerdi patsetan zegoen, eta, gerritik behera, bere pixaz blaituta ere bai.

-Éamonn Zerbitzu Bereziatan? Egia esan, ez naik batere harritzen.

Séamus atzeko lorategian zegoen, aulki luze batean eserita, baso bat whiskey eskuan eta Máirtín aldamenean. Algara hotsak iristen ziren sukaldetik, tarteka Croke Parkeko partidako irrati esatariaren kalaka grinatsurekin nahasiak. Azkenean, udan ezkontzen ari zen Cairtriona, berak aukeratutako datan, eta ez zegoen munduan egun hura gozatzea debekatuko zion dekreturik. Goiz hartan Séamusek ezkondu zituen auzoko kaperan. Zeremonian, batzuetan tagalora jo behar izan zuen, liturgia berria ez baitzekien bere hizkuntzan. Ezkonberriei horrek ez zien inporta, noski; pozik zeuden ezkondu zirelako, hizkuntza batean edo bestean izan bost axola.

Zeremonia amaitutakoan, denak joan ziren Cairtrionaren osaba zahar Jackek zeukan landa-pubera, ezkonberri zoriontsuen alde topa egitera begiluzeengandik urrun. Umore ona nagusitu zen, gonbidatuek ez zuten batere presarik, eta Máirtín arratseko eguzkira irtena zen lasaitasunezko une bat pasatzera bere ezkonsenide berriarekin.

-Ez zuan defentsa txarra –jarraitu zuen Séamusek-. Garai hartan, defentsak ez zituan errukitzen, batez ere zelai bazterretan, eta Éamonn beste edozein defentsa bezain ankerra zuan. Beti izan nian irudipena pozik obedituko lukeela edozein agindu, batik bat muturreko pare bat emateko aukera eskaintzen bazion.

-Eta zuk ez zenuen inoiz areriorik egurtzen, noski.

-Egia esan, nahiko bihurria ninduan Maynootheko apaiztegira joan baino lehen. Gero ere bai, baina hurling zelaitik kanpo.

-Maynooth beste mundu bat irudituko zitzaizun.

Séamusek hurrupa bat edan zuen erantzun baino lehen.



-Bai, antzeko zerbait. Hemezortzi urte nitian eta nahiko xaloa ninduan artean. Sinesten nian nire bokazioan, Jainkoaren deian, nahiago baduk, baina ordenaren arauak zorrotzak zituan. Egokia iruditu zitzaidan Filipinetara joatea, baina familiaren falta sentitu nian. Neure ahotsa aurkitu nian bertan, harik eta berriro ahoa estali zidaten arte, *Humanae Vitaeren* aurka mintzatu nintzenean.

-Humano zer?

Séamusek barre labur bat egin zuen.

-Barkatu. Batzuetan ahaztu egiten zaidak elizaren hierarkiak izaki hilkorron ulermenetik harago dauden moduetan diharduela. Kontrazepzio molde guztiak debekatzen zituen entziklika baten izena duk *Humanae Vitae*.

»Ez zitian aintzat hartzen, halako gauzekin sarri gertatzen den bezala, bertako jendearengan izan zitzakeen ondorioak; nik bai, ordea. Nire eliztar gehienak familia txiroak zituan, ama gazteak ia etengabe zeudean haurdun, edo bularra ematen, edo biak batera. Haren aurka ahotsa altxatu nuenean, Luzon uharteko iparraldeko parrokia txiki batera deserritu ninditean, eta, bertan zegoen apaiz faltarengatik izan ez balitz, ez zidatean utziko ezta meza ematen ere.

-Ez duzu iritzia aldatu geroztik, bizitza lasaiago baten truke?

-Ez horixe. Zorionekoak dituk Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, antza, haiek baitute Jainkoa errege. Hik ere ez duk ezkontza data aldatu bizitza lasaiago baten truke, ezta?

-Nahi bai, baina beldur gehiago ematen zidan Caitrionak txakurrek baino. Gauzak bere horretan utzi ez banitu, infernu ederra bihurtuko zidan bizitza.

-Sinestezina duk, Máirtín, xaxatzaile horiek nonahi zeudek.

Azken iruzkinaren kontura irribarrez ari zirelarik, Caitriona azaldu zen atzeko atean, eskuan baso bat zeramala. Biei, eta aldi berean, perla bat iruditu zitzaien, lorategiko itzal gero eta luzeagoak argitzen.

-Zer, mundua konpontzen? –esan zuen, bien artean esertzearekin batera.

-Gizon honi galdetzen ari nintzaionan ea zer sorginkeriaz baliatu den hi ezkon aldarera eraman ahal izateko –erantzun zion Séamusek, aulkian albo batera eginez.

-Ene, Séamus, trikimailutan ez dakizu ezer haren aldean. Ederra sakatu dit, bai. Gurinari gaineratuko zizkion sorginkeriak.

-Horixe egin nuen –esan zuen Máirtínek-, eta den-denak irentsi zituen.

Hitz egin bitartean, Caitrionaren ile luzea txirikordatzen ari zen oharkabe.

-Nola doa dena barruan? –galdetu zion.

Gonbidatuek, hogeit bat, sukaldean eman zuten arratsaldea, nahierara jaten eta edaten.

-Primeran –erantzun zuen neskak-. Partida bukatu bezain laster albokoengana joango gara, Hanleytarrengana. Telebista daukate, eta laster eman behar dute Apoloren ilargiratzea.

-Eta Dublineko ospakizun handiak?

-Laburtu egin dituzte, ilargiratzea zuzenean emateko.

-Sinestezina! Mundua aldatzen ari da, maitea, baita gurean ere.

-Horren berri ez baneki! Biak etorriko al zarete?

Séamus zutitu eta betaurrekoak garbitzeari ekin zion.

-Nola doa partida? –galdetu zion Caitrionari.

-Ez nago ziur, baina uste dut Kilkenny irabazten ari dela.

Osabak hasperen egin eta eskua Máirtínen sorbaldan jarri zuen.

-Goazemak, bada. Mundua aldatzen ariko duk, baina gauza batzuek berdin jarraitzen ditek.

Emanaldia amaitu ordurako denak pozik zeuden, edo mozkortuta, edo biak batera. Beren begiez ikusiak ziren bi astronauten irudi espektralak, oinak ilargiaren azala txandaka zapaltzen. Iluntzean, txango bat antolatu zuten Knockeen aldera, kilometro eskas batera zegoen muinotxora, ilargia gora egiten ikusteko. Segizio xelebrea osatzen zuten gonbidatu sasoitsuenek eta mozkortuenek landare-hesiko zuloa aurkitu eta muinoaren gailurrera zeraman bidea hartu zutenean. Caitriona zihoan aurrean, eta oinetan ihintza sentitu bezain laster erantsi egin zituen zapatak. Aldamenean, Aoifek gauza bera egin zuen. Lagun minetan minena zuen Aoife polita, hutsik egin gabe mutilen soak beti erakartzen zituen. Estropada osteko dantzaldian Máirtín topatu zuenean ere Aoife zeraman alboan.

Máirtín tabernako barran zegoen, eta itzuli zenean aurre-aurrean zeuzkan. Hasieran, lotsati antzean, begirada urrundu zuen, baina segituan jiratu zen haiengana. Caitriona konturatu zen begiak beregan zeuzkala iltzatuta, ezpainetan erdi irribarre bat zirriborrotuta. Aoiferi ere begiratu zion, jakina, gizon guztiek bezala, baina gero berari zuzendu zion berriz arreta. Minutu eskas batean gertatu zen hura guztia, baina Caitríonak dena gogoratzen zuen orain, gailurretik hurbil, Máirtínen barre algara ezagutu zuenean atzeko anabasan.

Gelditu zen eta atzera begiratu zuen Máirtínen bila, baina inguruko itzal guztiak antzekoak ziren ilunabarrean. Gizon harekin eman behar zuen geratzen zitzaion bizitza osoa, ez noski dantzaleku batean sumatutako begirada iheskor batengatik, haren oroipena ezin goxoagoa izan arren. Garai ankerra zen hura, erraldoien aro bat, edonora begiratuta jeneralak besterik ez zegoenekoa. Caitríonak bazekien halako jendearen aurrean ez zuela indarririk, eta, tenorea iristean, haien borondatearen aurrean makurtu beharko zuela. Tontorrera iristen ari zela, azkenik Máirtín ikusi zuen aldamenean. Hark ere amore emango zuen, konturatu zen, poliziakideen ordubete baino gutxiagoko itaunketan bertan behera nola etorri zen ikusita. Askotan amore ematen zuen Caitríonaren erreguen aurrean, ez izaera ahulekoa zelako, berez zintzoa zelako baizik. Ezaugarri haiek ez zioten askorako balioko beren nagusien kontra, baina Caitríonak haixek zituen gogoko. Gerritik heltzen zion gizon hura makurtu egingo zen, amore emango zuen, baina ez zen sekula hautsiko. Oso ongi zekien hori, haren ahots kexati hatsankaria belarrian xuxurlaka ezagutu zuen segurtasun berberaz.

-Alferrik igo ote gara honaino? Non arraio dago ilargia?

Hodei estalki baten pean, gonbidatuek ordu erdi luze bat eman zuten gailurrean, berriketan eta kantuan. Ilargiteak beheko trenbideko errailak distirarazi zituen arte ez ziren jabetu zerua argitzen ari zela. Hodeien artean ilgora agertzen ari zen, baina inork ezin zitzakeen bereizi haren gainean bi irudi bakarti pasieran.

-Lotan ote daude? –galdetu zuen norbaitek.

-Une honetan buruan izango duten azken gauza da kuluxka bat.

-Hala ere, bihar arte geratu behar dute hor, gizajoek. Atsedean pixka bat beharko dute, bada.

-Beharbada oheak eraman dituzte.

-Nola moldatzen ote dira komunera joateko?

Lagunarte hartan zeudela egin zitzairen ezkonberriei gaua, senar-emazte gisa emandako beren lehen gaua. Berriketak aurrera egin zuen, eta haiek entzuten geratu ziren: une hartan ez zuten beste inon egon nahi.

Pixkanaka, elkartutakoak alde egiten hasi ziren, eta Caitriona eta Máirtín haien atzetik muinoa jaistekotan zirelarik ikusi zituzten argiak. Bi aurrean eta bi atzean; bi auto, inolaz ere, tren geltokitik goranzko bidean. Ikusi zituzten beheko errepidetik pasatzen eta Jacken pubean geldialdi laburra egiten. Gero motorrak atzera piztu ziren eta, autoen argien norakoa aztertuz, berenganantz igotzen ari zirela ikusi zuten ezkonberriek.

Autoak muinoaren oinean gelditu zirenean, aire isilean oso argi aditu ziren gizonen ahots zakarrak beren artean eztabaidan. Auto ateak itxi eta esku-argiak piztu ziren, eta gizon haiek berenganantz bidea hartu zuten, balantzaka.

Máirtín argien aurrerabidea jarraitzen ari zela, Caitrionaren eskua sumatu zuen berea estutzen. Berak ere estutu egin zion eskua neskari, eta biok geratu ziren isilik beheko eszenari so, ilargi axolagabe baten begirada hotzaren pean.

\* \* \*